



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO IRAILAREN 25EAN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkateordea: Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palacios eta Josune Estella Arranz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2018/09/11KO OHIKO BILKURA.

Xabier Arregi eta Jone Urdanpilletaren aldeko botoarekin irailaren 11ko ohiko bilkurako akta onartu da. Alaitz Aizpurua abstenitu egin da bilkura horretara ez zelako bertaratu.

2.- ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUAREN LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0264

ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H-20350278) ordezkartzan diharduen MARINA LERTXUNDI MANTEROLA andereak, Zubiaurrenea kalea 5 etxean jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko azaroaren 15ean, zera erabaki zuen: ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H-20350278) ordezkartzan diharduen MARINA LERTXUNDI andereari, Zubiaurrenea kalea 5 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	119.428,36 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 128.282,14 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)



Usurbilgo Udala

Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 674,04 €
	Fidantza (%120): 808,84 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2018ko apirilaren 5ean ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H-20350278) ordezkartzan diharduen MARINA LERTXUNDI andereak obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaiera txostena 2018ko irailaren 13an aurkeztu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Miren Dorleta Erausquin Alijostes andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2018ko irailaren 14an lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Zubiaurrenea kalea 5 etxean jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2016ko abenduaren 5ean ezarritako 808,84 €-tako fidantza (IE 51-2016) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES91 2095 5069 0910 6613 2803.


HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

3.- KALEZARKO EGILUZEAUNDI BASERRIA (KALEZAR 78) ERABERRITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Puntu hau mahai gainean geratu da.

4.- 2017/18 IKASTURTEAN AISIALDIKO BEGIRALE/ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik



Usurbilgo Udala

2018ko ekainaren 14an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 25ean hasi eta uztailaren 6an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, 15 eskaera aurkeztu ziren.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2018ko uztailaren 24an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen 2017/2018ko aisialdiko diru-laguntzen inguruan.

Ebazpen proposamena uztailaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Eta kontuan harturik


- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (GAO 2017/07/18).
- 2017/17 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia (GAO, 2018/06/05)
- Diru-laguntzei buruzko ebazpen proposamena (GAO, 2018/07/30)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2017/18 ikasturtean aisialdiko begirale/zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea.

	Izen-abizenak	Diru-laguntza
1	Asier Angulo Galatas	173,69 €
2	Oier Larrea Granados	192,99 €
3	Alex de Miguel Rikondo	192,99 €
4	Pablo Perez Merino	192,99 €
5	Odei Guirado Irasuegi	147,44 €



Usurbilgo Udala

6	Maddi Egizabal Rikondo	115,79 €
7	Julen Lazkano Iturrioz	115,79 €
8	Xabier Lazkano Iturrioz	192,99 €
9	Mattin Aierbe Zubeldia	154,39 €
10	Andoni Juanes Canseco	192,99 €
11	Aitor Zabaleta Eizagirre	154,39 €
12	Nora Errazquin Eceiza	192,99 €
13	Malen Azpiazu Zubeldia	171,76 €
14	Enara Arruti Portularrume	135,09 €
15	Unai Lejardi Araolaza	173,69 €
	Guztira	2.500,00 €

Bigarrena: Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1 4400 481 326 00 01 2018 (A 216/2018)

Hirugarrena: Kontuhartzaileari akordioaren berri ematea.

Laugarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bosgarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.


5.- 2017/18 IKASTURTEAN EUSKARA IKASI DUTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik

2018ko ekainaren 5ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017/18 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 25an hasi eta uztailearen 6an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, guztira 43 eskaera jaso dira.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2018ko uztailearen 24an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen 2017/2018 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako diru-laguntzen



Usurbilgo Udala

inguruan.

Ebazpen proposamena uztailaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanaz alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Udako ikastaroen kasuan, eskatzaile guztiek ekarri dute asistentzia agiria, batek izan ezik: M. Aranzazu Lezanak. Honen arrazoia udako ikastaroa iraila bukaeran amaitzen dela da.

Udako ikastaroen kasuan, Javier Espinari, 456 euroko diru-laguntza izendatu zitzaion.

Diru-laguntza zurrizterakoan ekarri duen agiriaren arabera, ikusi da, ikastaroa 265 euro ordaindu duela, eta 191 euro, berriz, pentsioa.

Diru-laguntzen oinarrietara etorrira, hauxe jasotzen da 3. artikuluan:

“Udako ikastaroak eta Barnetegiak; ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako.”

Honenbestez, Javier Espinak 456 euro jaso beharrean, 265 euro jaso behar ditu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (GAO 2017/07/18).
- 2017/17 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia (GAO, 2018/06/05)
- Diru-laguntzei buruzko ebazpen proposamena (GAO, 2018/07/30)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:


ERABAKIA

Lehenengoa: M. Aranzazu Lezanaren diru-laguntza baldintzatua dago ikastaroko asistentzia ziurtagiria ekartzera.

Bigarrena: Diru-laguntzen behin behineko erabakian zuzenketa hau egingo da:

- Javier Espina: Diru-laguntzetan 456 euro jaso beharrean, 265 euro jasoko ditu.

Hirugarrena: 2017/18 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako diru-laguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea eta ordainketak bideratzea. M. Aranzazu Lezanari ordainketa asistentzia agiria



Usurbilgo Udala

ekartzen duenean bideratuko zaio.

	Izen-abizenak	Diru-laguntza	Oharrak
1	Xabier Undiano Korta	368,00 €	
2	Agurtzane Solaberrieta Mesa	600,00 €	
3	Garazi Lizaso Manterola	205,00 €	
4	Isabel Torres Lara	430,00 €	
5	Iñaki Murguia Garmendia	406,00 €	
6	Amaia Murgia Garmendia	427,00 €	
7	M. Carmen Saizar Lakarra	427,00 €	
8	Elixabete Lazkoz Fernandes	427,00 €	
9	Maria Fernandez Delkader	600,00 €	
10	Edurne Izagirre Pulido	600,00 €	
11	Estibaliz Perez Bergara	116,00 €	
12	Estibaliz Perez Bergara	0 €	
13	Ramon Carro Luengo	430,00 €	
14	Ana Maria Arostegi Usobiaga	449,00 €	
15	Odei Guirado Irasuegi	427,00 €	
16	M. Jesus Iglesias Rio	515,00 €	
17	Ana Elisabet Estella Arranz	600,00 €	
18	Arantxa Rabano Rubio	600,00 €	
19	Amaia Murugarren Merino	426,00 €	
20	Mari Mar Estella Arranz	600,00 €	
21	Ana Iturripea Souto	600,00 €	
22	Sheila Duran Blanco	600,00 €	
23	Jose Ignacio Urquijo Cabrera	536,00 €	
24	Juana Amezaga Velasco	267,75 €	
25	Francisca Navarro Guadix	72,36 €	
26	Francisca Navarro Guadix	187,00 €	
27	Javier Espina Roman	265,00 €	Egoitza gastuak ez dira diruz lagungarriak.
28	Antonio Arrizabalaga Goñi	561,00 €	
29	Maribel Mena Azpillaga	427,00 €	
30	Rosa Fernandez Mundi	368,00 €	



Usurbilgo Udala

31	Nuria Larrañaga Rubio	600,00 €	
32	Javier Espina Roman	335,00 €	
33	Maria Arruti Aranburu	342,00 €	
34	Maria Arruti Aranburu	205,00 €	
35	Jurgi Fuentes Goikoetxea	160,00 €	
36	Sara Sanchez Gutierrez	260,00 €	
37	M. Arantzazu Lezana Rodriguez	267,00 €	Udako ikastaroa. Diru-laguntza baldintzatua dago asistentzia ziurtagiria ekartzera.
38	Roman Romera Arranz	472,70 €	
39	Jose Antonio Varela Malta	561,00 €	
40	Carmina Garcia de Paz	100,00 €	
41	Karmele Liceaga Alcantara	449,00 €	
42	David Miguelez Santos	472,65 €	
43	Edison Fernandez Bustamante	430,00 €	
	GUZTIRA	17191,46	

Laugarrena: Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4200.480.335.00.01 2018 (A 217/2018)

Bosgarrena: Kontuhartzaileari akordioaren berri ematea.

Seigarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Zazpigarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:10etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.